

02

Indarkeria matxistarik
gabeko mundua:
Mugarik Gaberen apustu handia

ENFRENTAMOS
TODAS LAS
VIOLENCIAS
MACHISTAS



• patriarkaturik gabe
denok jabe •





Garapenerako Lankidetzak GKE den Mugarik Gabetik (mundu mailako) globala eta interdependienteak den garapenean sinisten dugu. Giza garapen osoa lortu nahian, hau da, emakume, gizon eta herrialde desberdinen artekoa zein datozen belaunaldientzat iraunkorra izango dena, urko dugun ingurutik garatzen dugu lana, gero gure mugatik zabaltzen dugularik.

ARABA

"Itziar" Elkartearen Etxea - Zalburu Plaza z/g, 01003 Gasteiz

araba@mugarikgabe.org

Tel.: 945 277 385 / 656 708 617

Faxa: 945 277 385

BIZKAIA

Grupo Vicente Garamendi nº5 P.B. 48006 Bilbo

bilbao@mugarikgabe.org

Tel.: 94 415 43 07 / 94 415 48 21

Faxa: 944 166 796

GIPUZKOA

Tejeria Kalea, beheak 5, 20012 Donostia

gipuzkoa@mugarikgabe.org

Tel.: 943 445 977 / Mugikorra: 656 708 598

Faxa: 943 445 977

Indarkeria matxistarik
gabeko mundua:
Mugarik Gaberen apustu handia





Ni ez naiz lore bat

Ez naiz lorea bezala zabaltzen
ezta lorea bezala hertsitzen
nire usainak ez du lore artean parekorik
eta ez naiz esku artean zimeltzen.

Harkaitz sendo bat naiz
deskantsurik gabeko lanarekin
emakume bihurtzen ari dena.

Eredurik ez eta
nigan nitasuna moldaturik
haizeak berak ere
mugituko ez duen nortasuna.
Itsas ertzeko harkaitz sendoa
emakume bihurtzen diharduena
heldutasunaren
sendotasuna izango ote?

Ez naiz lore bat
ez naiz inoiz inoren esku artean zimelduko.

Amaia Lasa Alegria

"Geroaren aurpegia. El rostro del futuro. 1967 - 1997" liburutik



Mugarik Gabe erakundeak ozen salatu nahi du indarkeria matxistak **giza eskubideen urraketa** direla. Hala, bada, bai mundu osorako bai tokian tokirako alternatibak bilatu nahi ditugu. **Arazo politiko** gisa ulertzen ditugu indarkeria matxistak. Esan bezala, giza eskubideen urraketa dakarte, eta funtsezko elementua dira **historian zehar nagusi izan den menderatze-estrategia patriarkalaren barruan**. Halaber, mundu osoko agenda feministetan ageri den ardatza dira.

Agiri honetan gure erakundeak gai horren gainean duen jarrera jaso dugu. Horretaz gain, agiria eztabaidarako tresna izan dadin nahi dugu, eta etengabeko bilakaera izan dezan bilatzen dugu, betiere, eskubideetan oinarritutako ikuspegi feminista oinarri.



1. Indarkeria matxistak: kontzeptuak eta sailkapenak

Azken urte hauetan, eta indarkeria matxistak hartu duen gaurkotasuna aintzat hartuta, jendarteratzen ari den eztabaidetako bat indarkeria mota hau izendatzeko moduarena da, izendapenak berak konnotazio ezberdinak baititu.

Hain zuzen, genero-indarkeria, emakumeen aurkako indarkeria patriarkala¹, indarkeria sexista eta indarkeria matxista kontzeptuek indarkeriaren kausak islatzen dituzte, baina euren artean ere desberdintasunak daude. Kolektibo batzuek nahiago izaten dute genero-indarkeria terminoa erabili, sexua/generoa sistemaren bidez azaldutako desorekak eta botere-harremanak jotzen baitituzte indarkeriaren kausa gisa. Beste batzuek, aldiz, uste dute kontzeptu hori lausoa dela, eta gizarteak ez duela ongi ulertzen. Horregatik, bada,

¹ *Ikus Lily Muñozek Indarkeria matxistak eta horiei aurre egiteko estrategiak jardunaldien barruan aurkeztu zuen txostena. Helbide honetan eskura daiteke: www.mugarikgabe.org*

indarkeria matxista edo sexista² erabiltzearen alde daude, kontzeptu horretan kausak ez ezik, erantzukizunak ere biltzen direla ulertuta, itzulgingururik gabe.

Azkenik, beste kontzeptu batzuek indarkeria zer tokitan ematen den adierazten dute, etxeko indarkeria, esaterako³, edo zeinek jasaten duten, emakumeen aurkako indarkeria, kasu. Indarkeria matxistak osasun publikoko arazoa direla dioten iritziekin ez gaude ados. Haien arabera, *erasotzaileek patologia bat dute, ez dute euren borondatez jarduten, eta haien indarkeria ez da interes instrumentalen erantzuna. Beste mota bateko indarkeria-ekintzak aztertzean, ordea, ez da horrelakorik planteatzen. Kasu horretan, erreferentziatzko patroia arautik aldentzen den patroia da (zigorra merezi duten jokoarez ari gara, arauetan oinarritutako bizikidetzari kalte egiten diotenak); azken batean, erreferentziatzko patroia lege-esparrua bera da*.

Indarkeria matxistak kontzeptua erabiltzea da gure proposamena, lehenago aipatu dugun bezala, indarkeriaren kausak era argi eta ulergarri batean azaltzen dituelako eta hau delako, hain zuzen ere, Euskal Herriko azken jardunaldi feministetan adostutako terminoa. Kontzeptua **pluralean** erabiliko dugu indarkeria mota honen adierazpen ezberdinak ikusgai jartzen dituelako; zolienetik muturrekoagoa den horretara arteko indarkeria adierazpen guztiak.

-
- 2 *Indarkeria sexista eta indarkeria matxista kontzeptuei dagokienez, autore batzuek planteatu dute indarkeria sexista indarkeria matxistaren barruan sartuta dagoela. Haien ustez, indarkeria sexistak modu espezifikoan heltzen dio emakumeek emakume izateagatik jasan behar duten indarkeriari. Izan ere, indarkeria horren oinarrian sexismoa dago eta haren helburua emakumeak kontrolatu eta menderatzea da. Indarkeria matxistak, berriz, genero-opresioetatik (heteronomatibitate...) askatzen diren lagun guztiek jasaten duten indarkeria biltzen du bere baitan.*
 - 3 *Etxeko indarkeria terminoak indarkeria zer tokitan ematen den utzi nahi du agerian. Termino hori, baina, asko kritikatu da, emakumeen aurkako indarkeria ezkututzen duela argudiatuta. Izan ere, termino horren barruan etxean gertatzen diren indarkeria-mota guztiak sartzen dira (neska-mutilek jasaten dutena, zaharrek jasaten dutena...). Halaber, indarkeria esparru pribatuarekin lotzen du, eta ahaztu egiten du arazo politikoa eta sozial gisa duen garrantzia.*
 - 4 *Monroy Romero, Maitena. Artikulua hemen dago eskura: www.pikaramagazine.com/?p=2452FirefoxHTMLShellOpenCommand*



1.1. Definizio batzuk

“Bizitza publiko edo pribatuan, balizko edota egiazko ondorio bezala kalte fisiko, sexuala edo psikologikoa duen eta generoan oinarritzen den edozein indarkeria ekintza izendatzeko erabiltzen da “Emakumearen aurkako indarkeria” terminoa, izan ekintza hauek mehatxuak, hertsadura edota askatasunaren ukapen arbitrarioa. Ondorioz, eta besteak beste, emakumeen aurkako indarkeriak forma hauek izan ditzake:

- a) *Familian ematen den indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa; kolpeak, haurren kontra etxean gertatutako sexu gehiegikeria, dotearekin lotutako indarkeria, senarraren eskutikako bortxaketa, ebaketa-genitala eta emakumeen aurkakoak diren beste ohiturak, senarra ez den beste pertsonak emakumeen kontra erabilitako indarkeria, eta esplotazioarekin lotutako indarkeria;*
- b) *Komunitateak era orokortu batean erabiltzen duen indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa; bortxaketak, sexu-gehiegikeriak, lanpostuan, hezkuntza instituzioetan eta beste alorretan emandako sexu-jazarpena eta beldurraraztea, emakumeen salerosketa eta behartutako prostituzioa;*
- c) *Estatuak erabiltzen edo onartzen duen indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa, gertatzen den tokia edozein dela ere”.*

Definizio hau **Nazio Batuen Erakundearen Emakumeen Mundu Mailako IV. Konferentziatik** jasota dago⁵, nazioarte mailan adostutako eta arloka sailkatutako definizioa da (familia, komunitatea eta Estatuak). Emakumeen bizitza zikloen arabera indarkeriaren beste sailkapenak ere badaude, bai eta, besteak beste, indarkeria motaren arabera ere. Hurrengo puntuetan hauetako batzuk ezagutuko ditugu.

Indarkeria matxistak definitzeko, beraz, Kataluniako Legean⁶ jasotako definizioa erabiliko dugu, zabalagoa dela eta egiturazko analisiari heltzen diola ulertuta: *“Indarkeria matxista da, gizonek emakumeekiko duten botere harremanaren testuinguruan kokatzen den, eta diskriminazioaren eta desberdintasun egoeraren erakusle den emakumeen aurkako indarkeria*

5 Txostena helbide honetan irakurri daiteke osorik:
http://www.inmujer.migualdad.es/mujer/politicas/docs/Informe%20de%20la%20IV%20Conf_Beijing.pdf

6 5/2008 Legea, apirilaren 24koa, emakumeek indarkeria matxista desagerrarazteko daukaten eskubideari buruzkoa

oro; baliabide fisikoak, ekonomikoak edota psikologikoak erabilia -mehatxuak, jazarpenak eta beldurrarazteak barne- ondorio bezala, esparru publikoan zein pribatuan, kalte fisiko, sexuala edo psikologikoa eragiten duen indarkeria hain zuzen ere”. Laburrago adierazita, honela definituta dago Legearen hasierako artikuluetan: emakumeek emakume izateagatik jasaten duten indarkeria-forma oro, emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman desorekatuen esparruan⁷.

1.2. Indarkeria-motak

Garrantzitsua deritzogu indarkeria-motei buruz hitz egiteari, arazoaren konplexutasuna behar bezala ulertzeko. Dena den, arretaz jokatu behar dugu, arazo politiko hau **fragmentatzeko** edo tematizatzeo arriskuan eror gaitezke-eta; arazoari bere osotasunen heltzeko oztopoei aurre egin behar diegu. Hain zuzen, indarkeria-motak aipatzen ditugunean, ezin dugu gaia politikatik bereizi, ezin ditugu kausak ahaztu eta kontuan hartu behar ditugu uneoro indarkeriak bere baitan biltzen dituen egiturazko erantzukizunak.

Horiek horrela, beraz, garrantzitsua da jarraian azaldutako motak (horietako batzuk agerikoagoak dira azken urteetan) *continuum* gisa ulertzea. Emakumeak kontrolatzeko mekanismo gisa erabiltzen da indarkeria, eta **erabilera hori *continuum* gisa ulertuta**, zera nabarmendu nahi da: emakumeek bai bikotearen barruan bai esparru publikoan (gatazka armatuak, estatu-indarkeria...) jasan behar duten indarkeria-mota ororen artean dagoen lotura, indarkeriak izaera sistematikoa eta egiturazkoa du-eta (Fries eta Hurtado, 2010).

Indarkeria ematen den **esparruaren** arabera tipifikazioa izan da landutakoa. Jarraian, eragiten den indarkeria motaren arabera tipifikazioan sakonduko dugu⁸:

- **Fisikoa:** ustekabekoa ez den eta kalte fisikoa sortu duen edo sor dezakeen edozein ekintza (bultzadak, objektuak jaurtikitzea... bai eta lesio larriagoak ere). Erasoen ondorioz sortutako gaixotasun edo lesioen aurrean laguntzarik ez ematea barne.
- **Psikologikoa:** Emakumeen gorputza xede izan gabe, hitzezkoak zein hitzezkoak ez diren jokabide hertsatzaileak (irainak, ateak kolpatzea, mehatxuak, salaketak...). Kalte psikologikoa, gutxiespena edota sufrimendua sortzen duten berariazko jarrerak.

⁷ *Ibid.*


⁸ *Emakunderen 2009ko txostena, bikote barruko indarkeriari buruzkoa.*

- **Sexuala:** emakumearen borondatearen kontra egindako edozein sexu-kontaktua. Sexu harreman jakin bat exijitzea edo inposatzea, jardunbide mingarri, desatsegin edo emakumearen borondatearen kontrakoetara behartzea, sexualki iraintzea, sexu harremanak izateko modua kritikitzea, sexu-objektu bezala tratatzea... Indarkeria mota hau oso naturalizatua dago, sexua emakumeen betebeharrak bezala eta gizonen eskubide bezala ulertzen delako.
- **Soziala:** emakumeak bakartzen direnean gertatzen da, familia eta lagunengandik urruntzen dituztenean eta publikoki gutxiesten edota alde batera uzten direnean, adibidez. Zenbait autorek indarkeria mota hau indarkeria psikologikoaren esparruan kokatzen dute.
- **Ekonomikoa:** emakumeei informazioarako edo diruaren kudeaketarako aukera eragozten zaienean ematen da. Egoera honek, baliabide ekonomikoaren faltarekin baino, baliabide horiek erabiltzeko lehentasunekin du lotura, klase soziala edozein dela ere. Dirua kudeatzeko emakumearen aukera era zorrotz batean kontrolatuz bideratua dago, emakumeak ordainduzko lana egin edo ez.

Orain artean aipatutako indarkeria motak jendartean ezagunenak direla uste dugu, baina guk indarkeria matxista esparru orokorrako baten aztertu nahiko genuke; egoera hau emateko arrazoiak ulertzeko eta bere konplexutasunean sakontzeko baliagarri izango zaigun esparru batean. Gauzak horrela, eta indarkeria patriarkatuaren adierazpen agerikoena dela pentsatzen dugunez, azterketa honetan egiturazko indarkeria ere jaso nahi izan dugu.

- Egiturazko indarkeria


Egiturazko indarkeria terminoa erabiltzen dugu, indarkeria zuzenik gabe, estratifikazio sozialaren prozesuen ondorioz pertsonaren oinarriko beharrian asebetezian (biziraupena, ongizatea, identitatea edo askatasuna) kaltea sortzen den egoeren aurrean (La Parra eta Tortosa, 2003). Zinez interesgarria da Johan Galtung-ek (1998) indarkeriaren gainean egindako irakurketa, indarkeria bera hiru indarkeria motak osatzen dutela planteatzen baitu; indarkeria zuzena, kulturala eta egiturazkoa, hauetako batzuk begi-bistakoak direla eta besteak ikusezina:



Menperatzaileak diren sistema politiko, ekonomiko eta sozialek jende kopuru handi bati bizimodu duin baterako aukera eta onurak ukatzen dizkiotenean egiturazko indarkeria ematen da. Egiturazko indarkeriaren adibide garbiak dira, gutxi batzuen onurarako milaka eta milaka pertsonaren gainesplotazioan oinarritzen diren sistema ekonomikoak, muturreko pobrezia ageriko aberastasunaren aldean, “arauetatik” aldentzen direnekiko errepresioa eta bazterketa, eta beste asko. Era berean, egiturazko indarkeria “indarkeria zuzenaren oinarria da, egiturazko indarkeriak sozializazio jarraibide batzuk ezartzen dizkiolako norbanakoari, bere funtzio sozialaren arabera, sufrimendua onartu edo ezartzera bultzatzen duena. Indarkeria zuzena, erasoaren, armen edo indarkeria fisikoaren bitartez gauzatzen da” (Larraín eta Rodriguez, 1993).

Gauzak horrela, sistema patriarkal menperatzaileak emakumeen kontra indarrean mantentzen duen eta egitura politiko, ekonomiko, sozial eta kultural guztietan islatzen den egiturazko indarkeria erabiltzen duela baieztatu dezakegu. Feminismo erradikala izan zen, hain zuzen ere, emakumeen kontrako indarkeriaren gaia azaltzen duen esparrua zehaztu zuena. Kate Millett-en *Política sexual* lanean hau irakurri dezakegu: «Ez gaude ohituak patriarkatua indarrarekin erlazionatzera. Patriarkatuaren jendarteratze sistema horren da perfektua, horren indartsua da bere balioen onarpen orokorra, eta horren luze eta unibertsala da bere historia jendartearen, ezen eta apenas duen indarkeriaren beharrik. (...) Arrazismoa eta kolonialismoa bezalako beste ideologia menperatzaileek bezala, jendarte patriarkalak ez balu indarkeriaren babesa izango -eta ez soilik larrialdietarako neurri bezala baizik eta beldurrarazte iraunkorrerako baliabide bezala-, ezingo luke jendartearen behar adinako kontrol eraginkorrik izan». Testuinguru honetan, emakumeen aurkako indarkeria ez da gertaera soil bat, ez da erasotzaile baten eta biktima baten arteko arazo pertsonala, testuinguru honetan indarkeria adierazpen hau emakumeen aurkako egiturazko indarkeri bilakatzen da. Indarkeriaren erabilpenak sexu-ezberdintasunean oinarritutako sistema indartu eta elikatzen du (de Miguel, 2005).

Indarkeria matxistaren “maila” ezberdinak:



Indarkeria sinbolikoa.


Indarkeria sinbolikoa “jazarpen fisikotik harago, eta aztikeriaz bezala zuzen zuzenean pertsonen gorputzetan eragiten duen botere mota bat da” (Bourdieu, 1999: 54). Indarkeria sinbolikoa da, hain zuzen ere, emakumeen kontrako egiturazko indarkeria eta indarkeria zuzena justifikatzen eta legitimatzen duena, emakumeenganako sistema menderatzailea bermatuz (Sonia Reverter bezalako zenbait autore indarkeria kulturalaren eta sinbolikoaren arteko antzekotasunaz mintzo dira, menderakuntza bermatu eta egiturazko indarkeria eta indarkeria zuzena legitimatzen dituztela baieztatuz). Indarkeria mota honen ezarpenerako beharrezkoak diren tresnen artean bi dira azpimarratzekoak: lengoia eta irudikapen kulturalak (Plaza, 2007).

Pierre Boudieu-k bere “Gizonen Dominazioa” obran (1999) aipatzen du gizarte antolaketak behar-beharrezkoa duela gizonen dominazioa berresten duen makineria sinboliko handia; eta



baieztatzen duenez, gizonen dominazioak objektu sinboliko bihurtzen ditu emakumeak, besteek sortutako izakitzat, eta horrek, etengabeko segurtasun gabeziko eta dependentzia sinbolikoko egoera batean kokatzen duena pertsona. Dependentzia sinbolikoa besteen ikuspegitik eta gureak ez diren baloreetatik geure burua ikusteko emakumeek dugun beharra da; kanpotik sortutako zerbait izanagatik ere, guztiok barneratzen duguna (Sosa, 2009). Indarkeria sinbolikoaren adibide da emakumeek sufritzen dugun presio estetiko, indarkeria matxistaren adibideetako bat. Gauzatu ezinezkoa den emakume estereotipo baten etengabeko bonbardaketa da; elikadura neurri zorrotzak hartu, edo tratamenduetan (izan kirurgikoak edo ez) gastu ekonomiko itzelak egiten ez badira bederen. Eta hau egiten denean ere, zenbait emakumek euren osasuna arriskuan jartzeaz gainera euren osasunari berari eraso egiten diote. Horren adibide dira elikadura nahasmenduak, estetika ebakuntzak, argaltzeko pastillak eta metodoak, eta abar (Estrada, 2009)⁹.

- 9 *Gizonei ere ezartzen zaie presio estetiko, baina ondorio eta arrazoi ezberdinengatik, kasu honetan interes ekonomiko neoliberala*



1.3. Feminizidioa

Indarkeria mota hauetz gainera, feminizidioa ere jasotzen dugu agiri honetan; alde batetik islatzen duen bortizkeriagatik, ondorioengatik, eta nazioarte mailan duen eraginagatik, eta bestetik zuzenean lantzen ari garen gaia delako. Feminizidioa eta Femizidioa kontzeptuen arteko eztabaida ematen ari da gaur egun:

- **Femizidioa:** “emakumeak izateagatiko indarkeriazko heriotza” edota “euren generoari lotutako arrazoiengatiko emakumeen erailketa”. Indarkeriazko heriotza esamoldeak heriotzaren kausa nagusia indarkeria izan dela nabarmentzen du.
- **Feminizidioa** terminoa erabiltzen da femizidio hitzak krimen hauetan nabarmena den misoginiari (emakumeenganako gorrotoari) dagokion lekua emateko duen ezintasunagatik, bai eta eremu publikoan gertatzen diren krimen hauen aurrean estatuek zigorgabetasunari bide emateko duten ardura adierazteko ere¹⁰.

Marcela Lagarderen arabera¹¹ feminizidioak emakumeen aurkako gorrotoaren ondoriozko krimenak dira, genero indarkeriaren aurrean jendarteak eta estatuek duten tolerantzia handian babesten diren krimen misoginoak. Faktore askok elikatzen dute doilorkeria hau; zigorgabetasunak, ikerketa penagarriek, gaizki egituratutako bilaketek, krimena jazartzeko ardura izanik biktimen salaketei arretarik jartzen ez dioten pertsonen izaera misoginoak, eta emakumeen bizitza bigarren mailakoa dela uste duten eta gutxiesteaz gainera emakumeak errudun sentiarazten dituzten epaile misoginoek, besteak beste. Isiltasunak, utzikeriak, hutsegiteak eta krimen hauek prebenitu eta erazteko ardura dutenen kolusioak era kriminal batean laguntzen dituzte femizidioak. Estatuak emakumeei bermerik eman ez, eta komunitatean, etxean, lantokietan, edo aisialdi lekuetan euren bizitza garatzeko segurtasun baldintzak sortzen ez dituen ematen da femizidioa. Autoritateek krimen mota hauek prebenitzeko, saihesteko eta zigortzeko euren lana behar bezala egiten ez dutenean gertatzen dira feminizidioak. Matxismo eta misoginiaren giro sozial eta ideologikoak krimen hauek elikatzen dituzte. Kontzeptu horri dagokionez, modu honetan definitu da **indarkeria feminizida: emakumeen aurkako genero-indarkeriaren muturreko forma da. Esparru publikoan eta pribatuan, dagozkion giza eskubideen urraketaren ondorio da. Gizartearen eta Estatuaren zigorgabetasuna eragin dezaketen jarrera misoginoen multzoak osatzen dute, eta homizidioa edo emakumeen indarkeriazko bestelako heriotzak eragin ditzake. (Lagarde, 2007).**

¹⁰ CEPAL batzordearen ¡Ni una más! txostena.

¹¹ Artikulua Envío aldizkarian eskura daiteke: <http://www.envio.org.ni/articulo/2888>

Zentzu honetan, Mugarik Gabek feminizidio terminoaren aldeko hautua egiten du, zigorgabetasuna ikusgarri jarri eta emakumeen bizimodua hobetu eta desberdintasun egoerak murrizteko beharrezko diren neurriak hartzen ez direnaren salaketari garrantzi handia ematen diogulako. Hala ere, argi azaldu behar dugu gurekin batera lan egiten duten emakume-erakundeekin zein feminista ezberdinen artean ez dagoela erabili beharreko kontzeptuaren gaineko adostasunik. Mugarik Gabek, baina, indarkeria matxistaren adierazpen ezberdinen aurka gurekin lan egiten duten eragileen estrategiak babesten ditu, eta bide horretan, gure lankide diren jardunak hobeto ulertzeko eta eurekin batera eztabaida hauetan sakontzeko aukera izango dugulakoan gaude.

1.4. Diskriminaziotik indarkeria matxistara. Non daude mugak?

Indarkeria matxisten inguruko hausnarketa eta eztabaida espazioetan indarkeria moten gainean sakondu dugunean topatutako zailtasun handienetako bat diskriminazioaren eta indarkeriaren arteko muga zehaztea izan da: Diskriminazio adierazpen guztiak dira indarkeria? Ba al dago egiturazko diskriminazioaren eta indarkeriaren arteko alderik? Konponbide-estragiak definitzeko egokia al da indarkeria eta diskriminazioaren arteko bereizketa? Egiturazko indarkeriaren eta indarkeria sinbolikoaren definizioek laguntzen al gaituzte estratergiakoagoak diren azterketa eta erantzunak aurkitzen, edota aitzitik, eztabaida gehiegi korapilatzen ote dute?


Aurreko puntuan landutako egiturazko indarkeriaren eta indarkeria sinbolikoaren kontzeptuei CEDAW erakundeak **diskriminazioaren** kontzeptuaz egiten duen definizioa gehituko diogu hemen: *“Helburu edo ondorio bezala emakumeen emakume eta gizonen arteko berdintasun printzipioan oinarritzen diren pertsonen oinarritzko eskubide eta askatasunen aitortza eta gauzatzea esparru politiko, ekonomiko, sozial, kultural edo zibilean zein beste edozein esparrutan baldintzatu edo eragozten dion sexuan oinarritutako edozein bereizketa, bazterketa edo murrizketa”* (CEDAW, 1. artikulua).

Bi kontzeptuak behar bezala bereiztea zaila dela jakin arren, gako nagusietako bat indarkeria diskriminazioaren adierazpen areagotu bat dela ulertzea da, pertsonen mendeetan eskuratutako eskubideen izaera inter-dependentea eta integrala azpimarratu eta genero indarkeria eskubide horien gauzapenean oztopo bat dela barneratzea. Nazio Batuen proposamenak berriro ere

aintzat hartuta, indarkeria mota ezberdinak diskriminazioaren adierazpen muturrekoenak direla ulertzen dugu¹².

Bazterketa- eta indarkeria-moten arteko lotura ulertzen laguntzeko, Dolores Julianok “indarkeriaren zirkulu zentrokideak” erabiltzen ditu¹³:


16



Erantzun guztiak gure eskura ez ditugula jakin badakigun arren, azaldutako ideiek, bada, eztabaidak eta kontzeptuak orrazten eta fintzen laguntzen digute. Hori bai, indarkeria matxistei heltzeko proposamen honetan, argi eta garbi eduki behar dugu zein den indarkeriaren arrazoia: **sistema patriarkala** indarrean dagoela eta etengabe errepikatzen dela. Indarkeria matxistak, euren forma guztietan, gizonek emakumeak menderatzeko darabilten modu krudelena islatzen dute. Haien helburua da kontrolari, emakumeek jasaten duten mendekotasun-egoerari eta genero-harreman eta -identitate tradizionaleri eustea.

12 CEPAL batzordearen ¡Ni una más! txostena.

13 Artikulua Envio aldizkarian eskura daiteke: <http://www.envio.org.ni/articulo/2888>



2. Testuingurua: aurrerapenak egin dira, baina oraindik zailtasunak daude

Azken hamarkadetan **AURRERAPEN** asko egin dira. Nabarmenezkoa da, besteak beste, **eraikuntza epistemologikoa**, hau da, mugimendu feministak egin duen ahalegina indarkeria-motei izena jarri eta horiek ezagutarazteko eta haien kausak eta adierazpenak teorizatzeako.

Bestalde, ezinbestekoak izan dira egindako aurrerapenak indarkeria matxistak funtsezko arazo politiko gisa jo daitezen ez bakarrik mugimendu feministaren eta emakumeen mugimenduen agendetan¹⁴ baizik eta estatuko, eskualdeetako eta nazioarteko erakunde publikoetako agendetan ere, betiere, giza eskubideen aldarrikapena lagun. Mugimendu feministak proposamenak aurkezteko eta mobilizatzeako izan duen ahalmenari esker, nazioarteko komunitateak generoagatiko bazterketa ezabatzeria bideratutako **itun** espezifikokoak sinatu ditu. Esaterako: emakumearen indarkeria eta haren kausak eta ondorioak aztertzeako ordezkari berezia izendatu da Nazio Batuen erakundearen, eta bazterketarik ezaren printzipioa txertatu da beste tresna batzuetan. Dena den prozesu horien bilakaera desberdina izan da nazioartean, eta eragina ere ez da berdina izan herrialde guztietan. Mugimendu feministak eta emakumeen mugimenduak funtsezkoak izan dira emakumeen eskubide espezifikokoak agerian uzteari lotutako estrategiak garatzeko eta estrategia horiek giza eskubideen korrante orokorrean txertatzeko. Hona hemen nabarmendu beharreko nazioarteko itun batzuk:

- **CEDAW:** Emakumeen aurkako diskriminazio mota guztiekin amaitzeko hitzarmena (Nazio Batuak, 1979).

¹⁴ Adibide gisa, nabarmenezkoak dira Emakumeen Mundu Martxak emakumeen aurkako indarkeria erazteko egindako aldarrikapenak (1998). Helbide honetan eskura daiteke: http://www.marchemondiale.org/revendications/index_html/es/base_view



Emakumeen eskubideen nazioarteko estatutua da, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alorrean ezinbesteko erreferentzia. Hitzarmen honetako 19. Gomendio Orokorrak argi adierazten du emakumeen kontrako indarkeria dela emakumeari gizonen eskubide eta askatasun berdinak izatea eragozten dion elementuetako bat. Zentzu horretan, gizon-emakumeek historian zehar konkistatu dituzten eskubide ezberdinen izaera integral eta elkar-menpekoa nabarmentzen du, bai eta indarkeria matxista emakumeek eskubide horiek gauzatu ahal izateko oztopoa dela ere.

Emakumeen kontrako indarkeria historikoki gizonen eta emakumeen artean eman diren botere harreman diskriminatzaileen adierazpena dela aitortzen da Hitzarmenean, bai eta giza-eskubideen eta oinarritzko askatasunen urraketa larria direla ere, emakumeei osoki edo partzialki euren eskubide eta askatasunez gozatu ahal izateko aukera eragozten diena. Ondorengo definizio hau ere jasotzen du Hitzarmenak: *“emakumearenganako balizko edota egiazko ondorio bezala kalte fisiko, sexuala edo psikologikoa duen eta emakumeen sexuan oinarritzen den edozein indarkeria ekintza da emakumearen aurkako indarkeria; bai eta indarkeria ekintza hauek gauzatzeko mehatxuak, hertsadura edota askatasunaren ukapen arbitrarioa, izan hau bitzitza publikoan zein pribatuan”*. Nazio Batuen Erakundeak hitzarmen horretan definitu zuen genero-indarkeria, eta haren esanahia Vienako Konferentzian berretsi zuen 1993an

- **Vienako Giza-eskubideen** Mundu mailako Konferentzia (Nazio Batuak, 1993). Emakumeen **indarkeriari** buruzko lehen nazioarteko definizioa da hau. Emakumeen kontrako indarkeria honela definitzen du: *“Bizitza publiko edo pribatuan, balizko edota egiazko ondorio bezala kalte fisiko, sexuala edo psikologikoa duen genero-bortizkeria ekintza oro, indarkeria ekintza hauek gauzatzeko mehatxuak, hertsadura edota askatasunaren ukapen arbitrarioa barne”*. Indarkeria mota honek emakumeen eskubideak erasotzen dituenaren aitortza Vienako Giza-eskubideen Mundu mailako Konferentzian jaso zen, 1993an.
- Emakumeen aurkako indarkeria prebenitu, zigortu eta desagerrarazteko **Belem do Pará**-ko Konbentzio Inter-amerikarra (1994). Eskualdeko herrialde guztiek berretsi zuten hitzarmenak horrela definitzen du emakumeen aurkako indarkeria; *“generoan oinarritzen den eta emakumeari heriotza, mina edota sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragiten dion edozein ekintza edo jarrera, izan esparru publikoan zein pribatuan”*. Hitzarmen honetako emakumeen aurkako indarkeriaren definizioak ondorengo esparruetan eman daitekeen indarkeria fisiko, sexual eta psikologikoa jasotzen du; familia edo etxe-unitatea, komunitatea edota Estatua.
- **Nazioarteko Gorte Penaleko Erromako Estatutua - CPI/NGP (1998)**. Gorte hau nazioarte mailako tresna juridiko bat da; munduko herrialde guztiei genozidio, gerra eta gizateriaren aurkako krimenez akusatutako pertsonak epaitu ahal izateko **auzitegi** independente eta

inpartzial iraunkor bat izateko aukera ematen diena. Eta aukera horrek atek irekitzen dizkio gizateriaren kontzientzia asaldatzen duten krimenen zigorgabetasunarekin amaitzeko esperantzari. Erromako Estatutuak; **genero eta sexu indarkeriak krimen bezala jasotzen ditu**, biktima eta lekukoekiko prozedura eta froga-arau sorta bat zehazten du, hauen babes eta parte-hartzea bermatzen ditu, genero definizio berri bat mahai gaineratzen du, emakumeak botere-guneetara eta Nazioarteko Gorte Penaleko lanpostuetara iristeko bidea errazten du, eta generoan oinarritutako diskriminazio ezaren printzipioa zehazten du. Era berean, Estatutuko zazpigarren artikulua zehazten du gizateriaren aurkako krimenak “bake zein gerra testuinguruetan eman daitezkeela, gatazka armatuko testuinguruetara lotuta egon beharrik gabe “ (Fries, 2003).

Espainiako Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan planteatutako lege-xedapenen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

- **Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Integralerako Neurrien Legea (Estatu Espainiarra, 2004)** Lege honek ez du genero-indarkeria soilik esparru pribatura mugatzen, publikoa ere aintzat hartzen du, eta “gure jendartean ematen den desberdintasun egoera latzenarensinbolo” bezala definitzen du. Emakumeek, emakume izate hutsagatik sufritzen duten indarkeria da, euren erasotzaileek oinarritzko askatasun, begirune eta erabakitze ahalmenik gabeko subjektu bezala hartzen dituztelako ematen den indarkeria. Lege hau asko eztabaidatu zen, alde batetik arreta emakumeengan jartzen duelako (hainbat taldek gizonak ere aintzat hartu behar zirela proposatzen zuten) eta bestetik bere eragin esparrua oso mugatua delako, emakume eta gizon baten arteko harremana dagoen edo egon den kasuetara mugatzen delako soilik, agiri honetan azaldutako beste indarkeria mota asko esparru honetatik kanpo utziz.
- **Berdintasunerako Euskal Legea (2005) (indarkeriari buruzko atal berezia du -7. kapituluabai eta prebentziorako hezkuntzari buruzkoa).** Euskal Legea bezala ezaguna denak horrela definitzen du emakumeen aurkako indarkeria; “bizitza publikoan zein pribatuan gertatzen diren eta ondorio bezala kalte fisiko, sexuala edo psikologikoa zein emakumearen sufrimendua duen edo izan dezakeen sexuan oinarritutako edozein ekintza bortitz, ekintza horiek egitearen mehatxuak, hertsapena edo askatasunaren mugapen arbitrarioa barne. Legeak bi atal nagusi jasotzen ditu; alde batetik heziketaren, prebentzioaren eta ikerketaren esparruan aurrera atera daitezkeen ekimenen sustapenera edo gauzapenera lotutakoak, Emakunderen protagonismo argia bultzatuz, eta bestetik II. Atala, arretara eta babesera bideratutako neurriei lotutakoa.

Hala nazioartean nola estatuan eta tokian tokiko esparruetan legediaren arloan eman diren aurrerapauso horiek askotariko jarduera-estrategien bidez (jarduera-protokoloak, koordinazioak, prebentzio-kanpainak...zehaztu dira. Estrategia horien eragina ez da berdina izan toki guztietan.



Azalpenaren puntu honetan, ordea, oraindik egon badauden **ZAILTASUN** eta aztopoei buruz hitz egin behar dugu. Izan ere, agiri hau idazten ari garen unean, indarkeriaren erabilera eta legitimazioa da nagusi, nazioarteko harremanen militarizazioa agerikoa da eta **fundamentalismo**-modu berriak sortzen ari dira. Europakoa, krisi ekonomikoa baino gehiago, zibilizazioaren krisia da. Testuinguru horretan, nazioarteko elkartasuna bazterreko kontua da. Halaber, askotan, gobernuak eta konpainia transnazionalak interes geopolitiko eta ekonomikoekin erabiltzen dute elkartasuna; haien helburuak urrun daude, beraz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta boterearen eta aberastasunaren banaketa orekatuagoa aldeztu duen ideiatik.

Testuinguru horretan, bada, indarkeria matxistak konplexuagoak dira; eguneratu egin direla esan dezakegu, **forma berriak** hartu dituzte-eta. Esaterako, eta gehiegi sakondu gabe, Eliza Katolikoaren adibidea ikus dezakegu. Izan ere, genero-ideologia delakoaren aurkako diskurtsoa hasi du. Haren ustez, *“**pertsonen sexua kontuan hartzen ez duen planteamendu horrek zera eragingo luke: bakoitzak bere generoa aukeratu ahalko lukeela**”*. Bestalde, sektore zehatz batzuek salaketa faltsuei buruzko mitoak zabaldu dituzte. Horrekin zilegitasuna kendu nahi diete egindako aurrerapenei eta, batez ere, indarkeria matxistek arazo politiko gisa jotzeak duen garrantzari. Indarkeria matxistak oso presente daude emakumeen bizi-ziklo guztian zehar, edozein dela ere kultura, etnia, klase soziala edo erlijioa.

Indarkeria matxisten **ondorioak** askotarikoak dira: pertsonalak, sozialak, ekonomikoak... Jarrera bortitzekin batera ematen diren bestelako gertakariak pertsonaren, familiaren eta jendartearen arteko mugak etengabe zeharkatzen dituzte. Koste pertsonalek (fisikoak, psikologikoak eta sozialak) emakumeen gaitasungabetzearen esparruan eragin handia dute; eta jendarteko zein lan munduko -edo bietako- parte-hartze eskas batean islatzen dira, bai eta produktibitate txikiagoan eta osasun fisiko zein mentaleko arazoetan. Horren ondoriozkoak dira hauek ere; erabakiak hartzeko orduan parte hartze eskasa, pertsonen arteko harreman eta sare mugatuak, mugikortasun geografiko murrizta, autoestimu ahula, eta oro har, euren erabakitzeak aukera mugatzen duen, eta emakumearen bizitzaren eta baliabideen gaineko kontrola eragozten duen bizi-kalitatearen okertzea. Europako Kontseiluak baieztatu du 16 eta 44 urte bitarteko emakumeen kasuan familiaren esparruan ematen den indarkeria dela **heriotza eta minusbaliotasun kausa nagusia**, minbiziak edo trafikoko ezbeharrek baino heriotza eta osasun arazo gehiago sortzen dituenak.

Jarraian zerrendatutako **datuek** erakusten digute indarkeria matxistak arazo politikoak direla oraindik, eta ezinbestekoa dela hari aurre egitea. Halaber, ikusten da arazo hori ez dela soilik herrialde txiroenetan ematen, baizik eta mundu osoko arazoa dela. Herrialde garatuetan ere indarkeria-kasuak daude, ustezko berdintasun-egoeran bizi bagara ere.

Euskal Autonomia Erkidegoa:

- 2010ean, guztira, genero-indarkeriagatik 4.285 biktimizazio¹⁵ erregistratu ziren. Datuak gora egin du 2002az geroztik (Emakumenderen 2011ko Txostena¹⁶).
- Plataforma Feministaren arabera, 2010ean 8 emakume erail zituzten Euskal Herrian.
- Emakunderen 2009ko Txostena: 2002-2009: 22 emakume erail zituzten EAEn genero indarkeriaren ondorioz; emakumeen bataz besteko adina: 45 urte; emakumeen % 77a euren bikotekideek eta bikotekide ohiek erail zituzten eta kasuen % 68an emakumeak euren hiltzaileekin bizi ziren.

Estatu Espainiarra¹⁷:

- Estatu Espainiarrean 71 izan ziren 2010ean euren bikotekide edo bikotekide ohiek erail zituzten emakumeak
- 1999 eta 2009 urteen artean 964 emakume erail zituzten arrazoi honengatik.
- 2006 urtean erasotzaileak bikotekideak edo bikotekide ohiak ziren 62.000 tratu txar salaketa baino gehiago jarri zituzten emakumeek.
- CISek 2012ko martxoan egindako inkestaren arabera, herritarren % 0,8k soilik aipatu du emakumearen aurkako indarkeria gaur egun Espainiako Estatuak dituen hiru arazo nagusien artean.
- Genero-indarkeriaren pertzepzioari buruzko azken txostenen arabera (III. eta IV. txostenak): herritarren % 53,7k uste du gizonak emakumeari jotzen diola alkohol edo droga gehiegi hartzen dituelako.
- ia herritarren % 2k indarkeria justifikatzen du kasu batzuetan, batez ere, banaketa-prozesuaren barruan gertatzen denean (600.000 lagun inguruk uste du hori!).
- % 7,3k ez du bere iritzia eman nahi; *“ezin saihestuzko arazotzat jotzen dute, beti egon den arazotzat”*.
- Gizonezkoen ia erdiak (% 45,3) eta emakumeen % 28,6k uste dute emakumeak eurak direla tratu txarren errudun, euren erasotzailearekin bizitzen jarraitzeagatik.

15 *Biktimizazio-estatistikan sartzan dira bidegabekeria penala jasan duten pertsonak; Ertzaintzak halakotzat jo eta erregistratu dituenean, herritar batek salaketa aurkeztu eta gero edo atestatua egin eta gero.*

16 *Emakunde. Helbide honetan eskura daiteke: www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/es/contenidos/informacion/cifras_ant/es_emakunde/adjuntos/cifras_2011_es.pdf*

17 *Emakumearen Institutuko datuak*



Mundu-mailan:

- Hiru emakumeetatik batek tratu txarrak edo sexu gehiegikeria pairatzen ditu (FNUAP, 2000).
- Mundu guztian zehar egindako 50 inkestetan oinarritutako azterketa baten arabera, bere bizitzan zehar kolpatua, harreman sexualak izatera behartua edo bestelako gehiegikeriara behartua izan den emakumeen kopurua % 33koa da (hiru emakumeetatik bat). Gehiegikerien egilea familia-kide bat edo pertsona ezagun bat izaten da normalean.
- Gaur egun munduan 60 milioi emakume baino gehiago “falta” dira sexuaren araberako abortu selektiboaren eta haur-hilketa femeninoa bezalako praktiken ondorioz. Amartya Sen.
- Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) txostenen arabera, eraildako emakumeen % 70a bere bikotekideek erailak izan ziren.
- Guatemala: Barne Arazoetako Ministerioaren estatistiken arabera, 2009. urtean 708 emakume erail zituzten Guatemalan. Feminizidioaren aurkako lege bat indarrean dagoen arren, krimen hauetako gehienak ez dira zigortuak izan.
- El Salvador¹⁸: Emakumeen heriotza bortitzen kasu kopurua asko handitu da azken hamar urteotan, 1999an 195 izan ziren, eta 2009an ordea 581. Hamarkada bakar batean kausa honengatik 3.578 emakume hil dira, eta urte honetako urtarrietik martxora 154 kasuren berri jaso da. 2000tik 2009ra feminizidio kasuak % 3,86tik % 154,36ra hazi ziren.
- Arazoak unibertsala izaten jarraitzen du emakume eta neskatoak indarkeriaren biktima direlako munduko eskualde eta herrialde guztietan. Indarkeriaren biktima diren emakumeek osasun arazoak izaten dituzte eta bizitza publikoan parte hartzeko gaitasuna ere mugatu egiten zaie. NBE-Emakumea entitatearen datuak¹⁹.
- 15 eta 44 urte bitarteko emakumeen artean, emakumeen aurkako indarkeria ekintzek minbiziak, malariak, trafiko ezbeharrek eta gerrek sortzen dituzten guztiak batuta baino heriotza eta minusbalioetasun kasu gehiago eragiten dituzte. NBE-Emakumea entitatearen datuak.
- 2006an, pertsonen trafikoaren biktimen % 79a emakume eta neskatoek izan ziren.
- Munduan 60 milioi neskato baino gehiago 18 urte bete baino lehenago ezkontzera behartzen dituzte.

18 Iturria: CIMAC (<http://www.cimacnoticias.com/site/10042301-En-9-anos-se-increm.42307.0.html>)

19 NBE-Emakumeak entitatearen datuak 2010. Hemen eskuragarri

- Gaur egun munduan ebaketa edo bereizketa genital femeninoaren ondorioekin bizi diren emakume eta neskatoen kopurua 100 eta 140 milioi artekoa dela zenbatesten da. Era berean, urtero-urtero hiru milioi neskatok ebaketa hau sufritzeko arriskua dutela pentsatzen da.
- Eskala handiko indarkeria sexuala gerra taktika bezala berariaz erabiltzeak ondorio suntsitzaileak ditu, eta ez soilik biktimez, baizik eta komunitatearentzat eta nazioaren berreskurapenarentzat. Kongoko Errepublika Demokratikoko ekialdean 200.000 bortxaketa kasu dokumentatu dira 1996tik gaur egunera arte, eta benetako datuak askoz handiagoak direla pentsatzen da.

Hau guzti hau, gai honen inguruko datuak eskuratzeko eta sistematizatzeke arazo handiak izaten jarraitzen dugula ahaztu gabe.





3. Eta guzti honen aurrean, zer egin? Estrategiak

Ikusi dugu, bada, indarkeria matxistak arazo politikoa direla. Giza eskubideen urraketa dakarte, eta bizitza duina izatea galarazten dute. Datuak aski esanguratsuak dira, eta orain arte idatzitakoa ere oso argigarria izan da. Dena den, gustatuko litzaiguke beste bi alderdi aipatzea, indarkeria matxistei aurre egiteko lanean ezinbestekotzat jotzen baititugu:

- **Pertsonen eskubideak;** genero indarkeria pertsonen eskubideen bortxaketa sistemiko eta sistematiko bezala nabarmentzen da, herrialde guztietan garapen ekonomiko, sozial eta demokratikorako oztopo bezala nabarmendu ere.
- **Justizia soziala;** ildo berdinean, ezinezkoa da eraldaketa sozialerako prozesu bat garatzea, pertsona edo talde bakoitzaren berezitasunetik abiatutako emakumeen aurkako indarkeriaren salaketa egin eta alternatibak garatu gabe.

Gaur egun, indarkeria matxisten deslegitimazioa gertatzen ari da; halaber, arazo sozial eta politiko gisa ulertzen hasi da (esparru pribatutik harago). Dena den, lan asko dago oraindik egiteke. **Prebentzio-** eta **zigor-neurriak** garatzen ari dira. Hona hemen oraindik ere, gaur egun, aurrera eramaten ari diren zenbait ekintza eta estrategia:

- Esparru juridikoa eta legala indartzea: lege espezifikoak, bai eta planak, programak eta estrategiak ere. Halaber, ekimen horiek definitu eta ondoren aplikatu, ikuskatu eta haien jarraipena egiteko tresnak (giza baliabideak, aurrekontuak...).

- Justiziara eta hari lotutako beste zerbitzu batzuetara iristeko bermea: polizia, sistema judiziala, osasun-arreta, arreta psikosoziala... bai arreta egokiari nola prebentzioari dagokionez.
- Erregistro eta sistematizazio egokia, bai eta ikerketa-lan eta estatistika espezifikoak (txostenak, behatokiak...) egiten jarraitzea.
- Instituzioen arteko koordinazioa.
- Aliantzak eta sareak eratzea mugimendu feministen eta bestelako gizarte mugimenduen edo giza eskubideen defentsan diharduten taldeen artean.
- Informazioa, zabalpena eta salaketa. Hedabideek, arteak... garrantzi handia dute, mundu sinbolikoa eta balioen aldatetan duten eragina dela medio. Oroimen-prozesuak indartzeko balio duten bisibilizazio- eta salaketa- ekintzak bultzatzea ere oso garrantzitsua da.
- Ildo horretan, eredugarria izan zen mugimendu feministak azaroaren 25a definitzea emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko egun gisa, eta ondoren, Nazio Batuen Erakundeak egun hori bera izendatzea Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Egun gisa (54/134 Ebazpena).
- Hezkuntza (balioak aldatzea: berdintasuna, parte-hartzea, horizontalitatea...) eta sentsibilizazioa. Batez ere, publizitate-kanpainen bidez, baina baita berdintasuna bultzatzen duen hezkuntza aplikatuz hezkuntza-sistema guztian.
- Estrategia berriak hausnartzen jarraitzea (ekintza zuzena, autodefentsa feminista...) eta, aldi berean, egun badaudenak indartzea.

Eta hala ere, errudunentzako **zigorgabetasunak**, biktimentzako eta bizirik atera direnentzako zerbitzu egokien gabeziak, emakumeen aurkako indarkeria eta estereotipo negatiboak betiketzen dituzten jarrera eta portaerak, eta ustez indarrean dauden neurriak egiazki ezartzeko baliabide gabezi orokortuak emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta berarekin amaitzeko oztopo izaten jarraitzen dute.

Lehenengo urrats bezala, egokia izan da, edo izaten ari da indarkeria hau sistema patriarkalaren ondorio bezala definitzea, orain artean indarkeria hau arazo edo zorigaitz pertsonal bezala kokatzen zuen definizio tradizionalarekin apurtu delako. Lantzen ari den beste aurrerapauso bat erasotzailea kriminal bezala **identifikatzea** da (beste estereotipo justifikatzaileetatik harago joanez) eta, besteak beste, zerbitzu publikoetan zein komunikabideetan ematen den bir-biktimizatzearekiko kritika.



Oraindik ere asko dago egiteko, batez ere nazioarteko zein nazio mailako **politiken** ezarpenean (horretarako aurrekontuak eta baliabideak bideratuz, idatzitakoa gauzatuz eta bere ezarpena bermatuz), bai eta Isabel Moyak planteatzen duen bezala, **koherentziaren** esparruan; *Nahikoa al da diskriminazioaren aurkakoak diren politiken alde egitea komunikabideen diskurtsoak diskriminazioa elikatzen duenean? Genero indarkeria zigortuko duen lege bat onartzea nahikoa al da publizitateak emakumea zatikatu eta gauza bihurtzen jarraitzen duenean?* (Isabel Moya, 2004).

Bide asko dago oraindik ere egiteko²⁰

2002an egindako emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko balantzeak ondorioztatu zuen 90eko hamarkadan aurrerapauso garrantzitsuak eman baziren ere, oraindik ere berebizikoak diren erronkak ditugula mahai gainean, hauek besteak beste:

- Boterearen, errepresioaren, terrorismoaren, gerren eta, genero, etnia edo erlijio arrazoiengatik hiltzen diren pertsonen erailketaren erabilpenean oinarritzen den kultura patriarkalaren adierazpen ezberdinak, lengoaia, ohiturak eta arauak kolokan jarriko dituen kultura mota ez bortitz bat sortzea.
- Belém do Pará-ko hitzarmenean inspiratutako arauen ezarpen falta gainditzea.
- Modu bateratu batean estrategiak eta ekimenak definitzeko aukera emango duten, eta herrialdeen eta eragileen arteko hartu-emana ahalbidetuko duten hedapen estrategiak hobetzea.
- Lege berriak onartu beharrean, legearen ezarpen egokia bermatzea, horretarako beharrezkoak diren baliabideak jarriz eta irizpideak homologatuz.
- Politikoei, epaileei, eta botere judizialeko funtzionarioei zuzendutako sentsibilizazio eta ahalduentze ekimenak indartzea legearen ezarpen egokia sustatzeko.

²⁰ Iturria: Emakumearentzako Nazio Batuen Garapen Funtza (UNIFEM).

Mugarik Gabe: Indarkeria matxisten aurkako estrategia 2010-2015

Mugarik Gabe sortu zenetik bertatik oso argi izan dugu genero desberdintasunak emakume eta gizonen arteko harreman justuagoetan eraldatzeko prozesuen aldeko gure apustua. Gaur egun apustu hori gure erakundearen misioan eta ikuspegiari islatzen da, bai eta gure egungo plan estrategikoan (2010 - 2015) ere, bertan zehazten baita sistema patriarkala salatzea eta indarkeria matxistei aurre egitea funtsezkoa elementuak direla.

Horrela, bada, 2010-2015 aldirako Mugarik Gabek tinko eusten dio **genero-berdintasunaren** aldeko apustu politikoari (prozesu guztietan zeharkakotasuna aplikatuta, eta emakumeen enpoderatze-prozesuak babestuta). Halaber, 5 urte hauetan zehar, **indarkeria matxisten aurka** borrokatzeko estrategia espezifikoa eramango dugu aurrera.

Indarkeria matxisten aurka borrokatzeko prozesuari dagokionez: **gure helburua, epe luzera**, da indarkeria matxisten ideian sakontzea eta hura zabaltzea baina **ikuspegi globalagoa eta egiturazkoa** aintzat hartuta (tratu txar fisikoez harago, beraz), eta munduko hainbat tokitako errealitateak Euskal Herrian bizi dugunarekin lotzea. Hona hemen jorratu beharreko puntuak:

- Emakumeen aurkako indarkeriaren egiturazko kausak agerian jartzea.
- Nazioarteko eta tokiko errealitatea agerian jartzea.
- Salaketak ez ezik, alternatibak ere agerian jartzea.
- Hezkuntza-ikuspegia ere garatzea, epe ertainera edo luzera begira, subjektu politiko aktiboak eratzea helburu.
- Tresnen eta adierazpide-modu berrien dibertsitatea sustatzea.

Zehazki, “gizarte mugimenduen baterako erantzukizuna bultzatu nahi dugu, nazioartean izan diren indarkeria matxistei aurre egiteko alternatibak artikulatu, salatu, prebenitu eta eraikitzeko EAEko erakunde publikoen eta herritarren artean”. Dena den, ezin dugu ahaztu mugimendu feminista dela aldarrikapen horien protagonista, eta, hartara, haiekin koordinatuta lan egingo dugu.

2010ean abiatutako strategiaren lehen fasean, indarkeria matxistei buruzko sentsibilizazio- eta heziketa-kanpaina eraman dugu aurrera. Horretarako, askotariko tresnak baliatu ditugu, besteak beste: prestakuntza, zinema, “*Martxan: indarkeria matxisten aurrean feministak*

martxan” dokumentala edo erakusketa bat. Bide horretan funtsezkoa izaten ari da epe luzerako hezkuntza-prozesuen laguntza; talde espezifikoei zuzenduta daude prozesu horiek.

Bigarren fasean **eragin politikoa** landu nahi da, batez ere. Gizartean eta beste talde zehatzago batzuegan eragin nahi dugu (erakunde publikoak, hedabideak...). Horretarako, estrategia nagusietako bat izaten ari da Indarkeria Matxisten aurkako Nazioarteko Kontzientziarako Epaitegia garatzen ari garela Euskal Herrian, salaketak eskubideetan oinarrituta egiteko.

Indarkeria matxistak arazo politikoa dira. Arazo horren gainean hausnartzen, ideiak trukutzen, lan egiten... jarraitu beharko dugu, indarkeriak salatze eta haiei aurre egiteko alternatibak bilatzeko. Jakin badakigu prozesua noiz hasi den, baina ez dakigu noiz amaituko den. Prozesua etengabeko bilakaeran dago, baina guk modu aktiboan jarraituko dugu parte hartzen.

ENFRENTAMOS
TODAS LAS
VIOLENCIAS
MACHISTAS



patriarkaturik gabe denok jabe



4. Kontsultatutako zenbait agiri gomendagarri

Bibliografia:

- Bourdieu, Pierre (1999) *La dominación masculina*, Anagrama, Barcelona.
- CEPAL (2007) “¡Ni una más! El derecho a vivir una vida libre de violencia en América Latina y el Caribe”. Helbide honetan eskura daiteke: www.eclac.org
- CEPAL (2009) “Ni una más. Del dicho al hecho ¿Cuánto queda por recorrer?” Helbide honetan eskura daiteke: www.eclac.org
- De Miguel Álvarez, Ana (2005) “La violencia de género: la construcción de un marco feminista de interpretación”. *Cuadernos de trabajo social* aldizkarian argitaratutako artikulua, 18. liburukia.
- Estrada, Laia (2009) “La presión estética: una forma de violencia de género”. Artikulua hemen dago eskuragarri: <http://www.lahaine.org/index.php?blog=2&p=35807>
- Fries, Lorena eta Hurtado, Victoria (2010) “Estudios de la informacisobrón e la violencia contra la mujer en América Latina y el Caribe”; serie *Mujer y Desarrollo*, nº 99 NNUU - CEPAL.
- Gómez, Adriana (1994) “Violencia contra las mujeres. Un ejercicio de poder”. Iturria: Heise, Lori; Pitanguy, Jacqueline; Germain, Adrienne. *Violencia contra la mujer: La carga oculta de salud*. Washington, D.C., OPS.



- La Parra, Daniel eta Tortosa, Jose María (2003) “Violencia estructural: una ilustración del concepto. GEPYD, Grupo de Estudios de Paz y Desarrollo, Universidad de Alicante”. *Documentación Social* aldizkaria, 131. Helbide honetan eskura daiteke: <http://www.ugr.es/~fentrena/Violen.pdf>
- Lagarde eta de los Ríos, Marcela (2007) “Por los derechos humanos de las mujeres: la Ley General de Acceso de las Mujeres a una Vida Libre de Violencia”. *Revista Mexicana de Ciencias Políticas y Sociales*, Vol. XLIX, Núm. 200, mayo-agosto, 2007, pp. 143-165. Universidad Nacional Autónoma de México. México
- Larraín, Soledad eta Rodríguez, Teresa (1993) “Los orígenes y el control de la violencia doméstica en contra de la mujer”. En: Gómez, Elsa, ed. *Género, Mujer y Salud en las Américas*. Washington, D.C., OPS. Publicación Científica N° 541.
- Monroy Romero, Maitena. Artikulua hemen dago eskuragarri: www.pikaramagazine.com/?p=2452FirefoxHTML\Shell\Open\Command- Plaza Velasco, Marta (2007) “Sobre el concepto de “violencia de género”. Violencia simbólica, lenguaje y representación [artículo en línea] Extravío. Revista electrónica de literatura compartada num 2. Universitat de Valencia. Helbide honetan eskura daiteke: www.uv.es/extravio
- Sosa, Teresa (2009) La Invisibilizada Violencia Simbólica. *Palabra de Mujer* blogean ikus daiteke: <http://palabrademujer.wordpress.com/2009/09/06/lainvisibilizada-violencia-simbolica/>

Txostenak:

- Indarkeriaren gaineko Emakunderen Txostenak, 2009 eta 2008. Hemen eskuragarri: http://www.interior.ejgv.euskadi.net/r42-avvg0000/es/contenidos/informacion/avvg_info/es_avvg/r42_avvg_prehome.html (Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza)
- Emakumearen Institutuko Txostenak. Hemen eskuragarri: www.inmujer.es

Araudia:

- Emakumeek indarkeria matxista errotik erauzteko eskubideari buruzko Apirilaren 24ko 5/2008 Legea. 2008ko maiatzak 30eko 131. EAO (KATALUNIAKO LEGEA).
- Espainiarra. Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien abenduaren 28ko 1/2004ko Lege Organikoa. 313. EAO 2004ko abenduak 29, asteazkena
- Emakume eta gizonen Berdintasunerako otsailak 18ko 4/2005 Legea (Euskal Legea)
- CEDAW Konbentzioaren Txostena

Kontsultatutako web-gune interesgarriak:

- Feminizidioari buruzko datuen Bankua: www.femicidio.cl
- Centro Virtual de conocimiento para poner fin a la violencia contra las mujeres y niñas de ONU Mujeres: www.endvawnow.org/es/
- Emakumeak Sarean: www.mujeresenred.net
- Nazio Batuak: www.un.org/es
- Observatorio de la Violencia de Género: www.observatorioviolencia.org/
- Genero-indarkeriaren aurkako sare feminista: www.redfeminista.org

5. Glosarioa

FEMINISMOA: Bi sexuen eskubide eta aukera berdintasunaren aldeko defentsan garapen iraunkorrean dagoen pentsamendu-korrontea. Mundua, botere harremanak, egitura sozialak eta sexuen arteko harremanak ulertzeko modu ezberdin bat da. Iturria: Emakumeak Sarean.

GENERO-EKITATEA: Gizonak eta emakumeak tratatzerako orduan -bakoitzaren beharren arabera beti ere- egon beharreko justiziarik egiten dio erreferentzia. Kontzeptu honetatik abiatuta tratamendu berdinak edo ezberdinak eman daitezke, baina eskubide, onura, betebeharrak eta aukeren esparruan baliokideak badira beti ere. Iturria: Amnistía Internacional.

PATRIARKATUA: Maskulinoaren femeninoarekiko menderakuntza bermatzeko (egitura politiko, ekonomiko eta sozialen bidez) indarrean eta instituzionalizatua dagoen gizarte-antolaketa sistema da. Iturria: Mugarik Gabe.

SEXISMOA: Sexu femeninoaren gutxiagotasun, mendekotasun eta esplotazio egoera indarrean mantentzeko erabiltzen diren metodo eta estrategien multzoa da. Iturria: Victoria Sau.

MATXISMOA: Sexua/generoa sistemarekin koherente diren jarrerak, ekintzak eta diskurtsoak jasotzen dituen jokabidea da, emakumeek eta gizonak bi talde desberdin osatzen dituzten sistema soziala. Iturria: Flavia A. Limone Reina.

ANDROZENTRISMOA: Mundu ikuskera honetan gizona hartzen da guztiaren erdigune eta neurri bezala. Iturria: Las Dignas.

INDARKERIA MATXISTAK: Emakumeen aurka erabiltzen den indarkeria da, gizonen emakumearekiko menderakuntza-harreman sistemaren testuinguruan diskriminazioaren eta desberdintasun egoeraren adierazle den indarkeria; bitarteko fisiko, ekonomiko edo psikologikoen bidez egiten dena -mehatxuak, beldurrarazteak eta hertsapenak barne- eta ondorio bezala min edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa duena, izan bizitza publikoan zein pribatuan. Iturria: Kataluniako Legea 5/2008.

INDARKERIA MATXISTA MOTAK

EGITURAZKO INDARKERIA: Sistema patriarkalak sortua, indarkeria mota honek menderakuntza sistema hau indarrean mantentzen du eta egitura politiko, ekonomiko, sozial eta kultural guztietan birsortzen du. Gainera, indarkeria zuzenerako zein ez zuzenerako oinarria da. Iturria: Mugarik Gabe

INDARKERIA SINBOLIKOA: Menderakuntza bermatu eta emakumeen aurkako egiturazko indarkeria zein indarkeria zuzena justifikatu eta legitimatzen du. Erlijioaren, artearen, lengoaiaren eta zientzien bidez ezartzen da batez ere. Iturria: Marta Plaza Velasco

INDARKERIA FISIKOA: Ustekabekoa ez den eta min fisikoa sortzen duen edo sor dezakeen edozein ekintza. Erasoen ondoriozko gaixotasun edo lesioen aurrean laguntzarik ez ematea barne. Iturria: Emakunde

INDARKERIA PSIKOLOGIKOA: Emakumearen gorputzaren aurka zuzentzen ez diren baina min psikologikoa, balio-galera edota sufrimendua sortzen duten hitzezkoak zein hitzezkoak ez diren jokabide hertsatzaileak (irainak, atek kolpatzea, mehatxuak,...). Iturria: Emakunde

INDARKERIA SOZIALA: Emakumeak bakartu eta euren lagunengandik eta familiarengandik urrundu, jendaurrean deskalifikatu edo albo batera uzten direnean gertatzen da besteak beste. Iturria: Emakunde

INDARKERIA SEXUALA: Emakumearen borondatearen aurka egindako edozein kontaktu sexual. Harreman sexual bat exijitu edo inposatzea, nahi ez diren praktiketara behartzea, sexualki iraintzea,... Iturria: Emakunde



INDARKERIA EKONOMIKOA: Informazioa ukatzea edo emakumeari diruaren maneia zorrozki eragozte, izan emakumeak ordainduzko lana edo ez. Iturria: Emakunde

FEMINIZIDIOA: Emakumeen aurkako genozidioa da. Matxismoaren eta misoginiaren giro sozial eta ideologikoan sortu, eta genero-indarkeriaren aurrean jendartean zein estatu mailan dagoen tolerantziaren ondoriozko emakumeen aurkako indarkeriazko jardura sozial normalizatuak dira, emakumeen integritatearen, osasunaren, askatasunen eta bizitzaren aurkako atentatuak ahalbidetzen dituzten praktika sozialak. Iturria: Marcela Lagarde.

